

HITZAURRE GISA

Maria-Jose Azurmendi

Zuzendaria

Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net

Gure aldizkari honen aztertze-arloa oro har soziolinguistika da, euskal soziolinguistika bereziki, bere zentzu zabalean hartuta: hainbat tradizio disziplinarren arteko lotura egiten dakiena, bertan sortzen diren ibilbide eta ikuspegi anitzak osagarri moduan lantzen dituena, teorikoa eta aplikatua dena, unibertsaltasuna eta lekukotasuna maneiatzen dakiena, eta abar. Hauetako azpimarratze asko jaso dira aldizkari honetan, neurri batean bada ere, bere historian zehar. Aldizkariaren bilakaeran parte hartu dutenen artean daude unibertsitate munduarekin lotzen diren ezagutzak eta adituak, bai irakaskuntzarekin eta bai ikerkuntzarekin gauzatzen direnak, baita gauzatu nahi direnak ere; horregatik, unibertsitatearen eta unibertsitarien inplikazioa lortzea beharrezkoa ikusten dugu modu egokienean aurrera egin ahal izateko. Horrela sortu da zenbaki honen aztergai monografikoaren beharra: unibertsitate mailako soziolinguistika irakaskuntza eta ikerkuntza nolakoak ditugun jakin beharra, nahiz eta zenbaki honetan irakaskuntza landuko den. Horretarako, Euskal Herrian ditugun unibertsitateetara eta unibertsitate mailako bestelako irakaskuntzetara ere joan

gara nolako egoera dagoen jasotzeko asmoarekin; zenbaki honetan lortutakoa adierazten dugu.

Jaso dugunaren arabera argazkia egiteko, unibertsitate mailako egitasmo bakoitzaren ezauzgarri batzuk gogoratzen hasiko gara:

- Euskal Herriko Unibertsitatera (UPV/EHU) bagoaz, EAEko hiru campusetako egoera adierazten da. Gaur egun dagoena aipatzen bada, hau da egoera:

1) Arabako campusean, lizentziatura mailan: Filologia titulazioan hautazko irakasgai bat dago: Soziolinguistika izeneko hain zuzen. Eta gradu osteko (doktoraduan, kasu honetan) mailako bi ikastarotan oinarritzko irakasgai bana daude: Soziolinguistikaren Oinarri eta Hastapenak, eta Ukitutako Hizkuntzen Soziolinguistika izenekoak, denak irakasle batek emanak. (Aipa daitezke beste bi irakasgai ere, Filologia titulazioan, soziolinguistikari (modu zabalean ulertuta) sartzen direnak: Hizkuntzalaritza Aplikatua eta Psikolinguistika izenekoak; hauek ere hautazkoak dira).

2) Gipuzkoako campusean, berriz, lizentziatura mailan ezer gutxi dago, eta dagoena badirudi hautazkoa dela. Soziolinguistika modu zabalean ulertuz aipa daitezkeenak dira, adibidez: Hezkuntza Zientzien titulazioan Hizkuntzaren Pedagogía, edo Psikologia titulazioan Eleaniztasunaren Psikologia eta Gizarte Psikologia eta Hizkuntza izenekoak (azken hau *Inguma* datu-basean bakarrik jasotzen da). Gradu osteko mailan ezer ez dago.

3) Bizkaiko campusean ere egoera antzekoa da, irakasgai bakarra (hautazkoa) dagoelako lizentziatura mailan, Gizarte eta Komunikazio Zientzien titulazioan: Hizkuntza Komunitateak eta Gatazka Linguistikoak izenekoak. Titulazio honek gertatutakoa adierazgarria da soziolinguistika arloak gurean nolako balorazio kaskarra duen ulertzeko: 1999/2000 ikasturtean sei irakasgai izatetik, 2006/2007 ikasturtean irakasgai bat izatera pasatu da.

- Deustuko Unibertsitatean (DU) jotzen badugu, gaur egun Bizkaiko campusean derrigorrezko irakasgai bat dago: Euskal Filologia graduko titulazioan, Soziolinguistika izenekoak.

- Mondragon Unibertsitatean (MU), Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Hizkuntzen Departamentua dago eta bertan txertatzen dira soziolinguistikarekin lotzen diren irakasgaiak, berriz ere soziolinguistika bere zabaltasunean ulertuz:

1) Irakasle Ikasketa gradu mailako titulazioan: Eleaniztasuna eta Hezkuntza, eta Euskara eta bere Didaktika izeneko bi irakasgai daude, biak derrigorrezkoak diruditenak.

2) Psikopedagogia izeneko bigarren zikloko lizentziatura mailako titulazioan, berriz: a) Hizkuntzen Psikopedagogia eta Esku-Hartze Psikopedagogikoa izeneko bi

ibilbidetan: Helduen Irakaskuntza: Euskalduntzea eta Alfabetatzea, Hizkuntzen Irakaskuntzarako Oinarri Psikopedagokoak, Eleaniztasuna: Oinarrizko Kontzeptualizazioa, Soziolinguistika Hastapenak, eta Hizkuntzaren eta Hizkuntzen Aniztasuna izeneko bost irakasgai daude, derrigorrezkoak diruditenak. b) Hizkuntzen Psikopedagogia izeneko ibilbidean ere: Diskurtso Teoriak, Diskurtso Teoriak eta Hizkuntzaren Didaktika, Hizkuntzaren Eskurapena: Ahozkoa eta Idatzizkoa, Irakaskuntza Eleanitza, Euskal Herriko Egoera Soziolinguistikoa, Hizkuntzen Didaktikarako Metodologia eta Lanabesak, eta Testu Generoen Karakterizazioa izeneko beste zazpi irakasgai, hauek ere derrigorrezkoak. c) Hizkuntzen Kudeaketan Aritu titulazioan, lizentziatura mailakoa izan gabe, zenbait kreditu bete daitezke, derrigorrezkoak batzuk eta hautazkoak beste batzuk.

- Iparraldean, Paue eta Aturriko Unibertsitatean eta bereziki Baionako Irakasgaien Arteko Fakultatean, Euskal Filologia eta Euskal Ikasketak izeneko titulazioetan: a) Masterra, lizentziatura osteko mailan: Soziolinguistikarekiko irakasgai hautazkoa dago. b) Lizentziatura mailan, berriz, derrigorrezko irakasgai batzuk daude.

- Udako Euskal Unibertsitatean (UEU), berez unibertsitate mailako titulaziorik ez da ematen, baina bai zenbait kreditu osagarri lortzeko gorago aipatutako unibertsitateetako titulazioetako baliagarriak diren ikastaroak, unibertsitate mailakoak kontsideratzen direlako, baita soziolinguistikarekin lotzen direnak ere. Duen antolaketa malguarengatik, urtero (edo ia urtero) irakaskuntza mota ezberdinak eskaini ditzakete, edo ikastaroen aztergaiak aldatu; zenbait ikastaro beste erakunde batzuekin batera elkarlanean eskaintzen dituzte, gizartean sumatzen diren pre-

tzko beharrei erantzun nahian. Horrela, gaur egun (2006an), 26 sailen artean, Soziolinguistika eta Glotodidaktika izenekoak ere badaude. Soziolinguistika sailen:

1) Soziolinguistika Klusterrarekin batera (gure aldizkari hau bideratzen duena, hain zuzen) antolatu dute ikastaroa, eskaintza hau eginez: Erronka Berriak Euskararen Erabilean izeneko ikastaroa, bertan zenbait aztergai landuz eta zenbait irakasle inplikatu.

2) Badira bestelako ikastaroak ere: profesionalen etengabeko prestakuntza bideratzeko, Soziolinguistika Irakasteko Teknika eta Estrategia izeneko ikastaroa dago (20 ordukoa). Edo jardunaldiak eta bilkurak: aurten Immigrazioa eta Hizkuntza Politika Udalerri Euskaldunetan izenekoa, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin (UEMA) batera. Edo Gaztea Izan eta Euskara Ahoan izenekoa, oraingoan Uribe-Kostako Euskara Zerbitzu Mankomunitatearekin batera.

3) HIZNET Masterrean parte hartzen du.

- Unibertsitate mailakoa den Masterra ere badago, Soziolinguistika arloa lantzeko, Hizkuntza Plangintza Ikastaroa (HIZNET) izenekoa: UPV/EHUko Soziologia 2 saila, Eusko Ikaskuntzako Asmoz erakundea, Soziolinguistika Klusterra, UEU eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza erakundeen artean antolatzen da, 26 irakasgairen eskaintza emanez (290 ordu, horien artean 200 ordu bete beharreko) 33 irakaslerekin: EHUko irakasleak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikariak, euskararen udal teknikariak eta euskalgintzako profesionalak. 5 modulutan sartzen dira irakasgaiak: Soziolinguistikaren hasi-masiak: Soziolinguistikaren funts teorikoak; Egoera soziolinguistikaren diagnostikorako hurbilpena; Euskara: Corpusha eta statusa; Esparruz-esparruko plangintzak: Makroak eta mikroak; eta Euskararen komunikazioa. Moduluka ere ikas daiteke.

- Renoko Unibertsitateko Center for Basque Studies erakundean ere eman ohi dira euskal soziolinguistikarekin lotutako ikastaroak.

Ez ditut orain aipatuko soziolinguistika arloan, unibertsitate mailan, irakaskuntzarekin batera egiten diren beste zenbait ekintza: ikerkuntza, materialak sortzea, adituen inplikazioa, adituen arteko guneak irekitzea (informatika teknologiak aprobetxatuz), INGUMA datu-basea eguneratzea, eta abar. Hauek denak garrantzitsuak dira, baina zenbakia irakaskuntzari buruzkoa denez, artikulu guztietan ez dira jaso irakaskuntzatik kanpo egiten diren horiek, eskatu ez zitzaielako. Hala ere, merezi du jasotzen diren aipamenak kontuan hartzeak, aberatsak diren neurrian.

Ikusten denez, mota ezberdineko eskaintza dago soziolinguistika arloaren unibertsitate mailako irakaskuntzan Euskal Herrian (gogoratu ez dugula jaso Nafarroa Garaiko Universidad Pública de Navarra (UPN) eta Universidad de Navarra (UN) pribatuaren informaziorik):

- Irakaskuntza mota aldetik: 1) arrunta dei dezakeguna, unibertsitateko titulazio normaletan txertatzen dena: 1.-2. zikloetan, doktoretzako 3. zikloan, edo masterretan (UPV/EHU, DU, MU, Baionako Fakultatea). 2) Berezia dei dezakeguna, titulaziotik kanpo ematen dena: bestelako guztiak (UEU, HIZNET). Bien arteko ezberdintasunak nabariak dira, adibidez: arruntean gehiago espero zitekeen soziolinguistika arloa modu aberatsagoan (irakasgai gehiagorekin) eta normalagoan (irakasgai derrigorrezkoekin) aurkitzea, baina alderantziz gertatzen da gure testuinguruan, salbuespenak salbuespen, MUREkin gertatzen den bezala.
- Erakunde mota aldetik: 1) publikoak: UPV/EHU eta Baionako Fakultatea. 2) Pribatu arruntak, DU eta MU. 3) Pribatu bereziak, UEU eta HIZNET. Hauen artean ere ezberdintasun handiak daude: a) UPV/EHUn,

unibertsitate nagusia (handiena, titulazio gehien duena, zabalduena hiru campusetan, eta abar) eta publikoa izanik, bertan aurkitzea espero zitekeen soziolinguistika arloaren presentzia nagusia, baina hain justu alderantziz gertatzen da; b) pribatu arruntaren artean ere: zaharrena den unibertsitatean (DU) dago eskaintzarik txikiena, eta berria den unibertsitatean berriz (MU) eskaintza nahiko aberatsa aurkitzen da; c) pribatu bereziak dira (UEU, HIZNET) aberatsenak, nahiz eta bereziak izan eta ez arruntak, euskalgintzako erakunde sozialen artean araututakoak, nahiko paradoxikoa dirudiena gure euskal testuingurutik kanpo.

- Bilakaera aldetik: 1) badaude bilakaera positiboa adierazten duten erakundeak eta egitasmoak, soziolinguistikari dagokionez, arlo honi ematen dioten garrantzia handitzen eta aberasten doalako (MU, UEU, HIZNET); 2) eta alderantziz, badaude garrantzia txikiagotzen eta pobretzen doazenak (UPV/EHU), edo indar gutxiarekin mantentzen dutenak (DU, Baionako Fakultatea), eta abar.

Orokorrean ebaluatu beharko bagenu, soziolinguistikari ematen zaion garrantziaren arabera, badirudi argi ikusi daitezkeela:

1) UPV/EHU ageri da paradoxa handienak dituen unibertsitate arrunt modura: baldintza onenak izanik (publikoa delako, gizartean adostua dagoelako, handiena eta zabalduena delako, eta abar), modu eta neurri kaskarrean erantzuten dio bere testuinguru sozialean (euskal testuinguruan) ematen den aztergai berezi handieneko bati: bi hizkuntzen arteko ukipenaren aztergaia, hain zuzen, soziolinguistika eta antzeko arloak (psikolinguistika, hizkuntzaren gizarte psikologia, hizkuntzaren psikopedagogia, ...) landuz. Egia da irakaskuntzan bi hizkuntza eredu irekita dituela, euskarazkoa eta erdarazkoa, baita euskarazko materialak sortzen ekiten duela

ere; baina nahikoa al da hori? Soziolinguistikari ez al litzaioke eman beharko leku egokiagorik?

2) MU unibertsitatea ere nahiko paradoxikoa azaltzen da, baina kontrako zentzuan oraingoan: nahiz eta unibertsitate txikia eta berria izan, eta pribatua, soziolinguistikari leku aberatsa ematen dio.

3) Paradoxikoa ordea da, agian, UEU bezalako erakunde bat da: baldintza kaskarrean jakin izan duelako modu nahiko aberatsean soziolinguistika arloa lantzen, zenbait unibertsitari eta aditu inplikatur. Antzera esan daiteke HIZNET egitasmoaz ere.

Egoera honek erakusten du, besteak beste: a) euskararen normalizazio bidean (baita eleaniztun bihurtze prozesuan ere), ezinbestekoa zaigula, oraingoz behintzat, instituzio ofizialak eta erakunde sozialak biak normalizazio bidean eragiteko, baita unibertsitate munduan ere; b) egungo egoera hau egoera nahiko extraordinarioa dela, egoera nahiko anormal batean gaudela, egoera normalean nahikoa izan beharko lukeelako bide bakarrak. Artikuluetan jaso diren ebaluaketak ere, gehienbat UPV/EHUren egoeraren aurkezpenetan, nahiko bat datoz hitzaurre honetan esaten ditugunekin. Hala bada ere, gerora begira zer espero daitekeen ikustea, eta zer lortu nahi den ikustea ere, epe motzean eta luzean, da garrantzitsuena, baina hau beste baterako utziko dut.

Ohikoa zaigunari eutsiz, artikulu batean jasotzen da Katalunian nolako egoera duen soziolinguistika arloak, edo irakasgaiak, beren unibertsitateetan. Artikuluan bereizten dira:

1) arautu gabeko irakaskuntza: mintegiak, jardunaldiak, masterrak eta graduondokoak, eta doktoretza ikastaroak (azken hauek ere atal honetan sartzen ditu artikuluen egileak).

2) Araututako irakaskuntza, unibertsitateko titulazio arruntetan sartzen dena (1. edo 2. zikloetan), bai soziolinguistika orokorra (modu zaballean ulertuz) eta baita katalanaren soziolinguistika ere, bai derrigorrezkoak direnean eta baita

hautazkoak direnean ere; interesgarria da unibertsitate bakoitzean dagoenaren internet helbidea adieraztea, kasu bakoitzeko informazio osoa jasotzeko bidea errazten digulako.

3) Derrigorrezko bigarren hezkuntzan ere saio batzuk egin dira, eta gehiago egiteko aukerak ere ba omen dira, oraindik gehienbat soziolinguistika eta katalanaren soziolinguistika materialak argitaratzea izan bada ere lortu dutena.

Euskal eta kataluniar testuinguruetan ematen direnen artean, badaude:

a) antzekotasun batzuk, adibidez, inplikatu daudelako soziolinguistika arloarekin: unibertsitate publikoak eta pribatuak, 1. eta 2. mailako titulazioak, bai derrigorrezko eta baita hautazko irakasgaien bitartez, eta abar.

b) Baita ezberdintasun batzuk ere: unibertsitateko irakaskuntza arruntaz gain, euskal testuinguruan irakaskuntza berezia ere badagoelako (agian, euskal testuinguruan egoera extraordinarioagoan edo anormalagoan gaudelako, soziolinguistikoki, kataluniar testuinguruan daudena baino). Kataluniar testuinguruan soziolinguistika gehienbat Filologia titulazioarekin lotzen da, baina euskal testuinguruan baita, eta agian gehiago, Soziologia titulazioarekin ere.

c) Erdi-antzekoa eta erdi-ezberdina da derrigorrezko bigarren hezkuntzan soziolinguistikaren irakasgaia sartzea: kataluniar testuinguruan jadanik hasita daude, eta euskal testuinguruan eztabaida behintzat jadanik irekia dago, erretzik diktatzen ari den euskal kurikulumaren barruan sartuz. Gure testuinguruan beti zaigu interesgarria kataluniar testuinguruan gauzak nola ematen eta bilakatzen diren ikustea; baita zenbakia-zenbakiaren aztergai honekiko ere.

Gurean atalean dugun artikulua: Euskararen normalizazioa testuinguru askotarikoan izenokoa, gaur egun nahiko modu berrian eta larrian bizitzen ari garen etorkinen fenomenoari buruz mintzatzen da. Atal hauek bereizten dira: 1)

egungo egoeraren diagnostika: hizkuntzaren egoera, eta immigrazioa eta aniztasuna, bi zutabetan zehar, alderdi hauek aztertuz: mehatxuak (kanpoko alderdi kaltegarriak), ahultasunak (barneko alderdi kaltegarriak), aukerak (kanpoko alderdi aldekoak), indar guneak (barneko alderdi aldekoak); 2) eremu urriko hizkuntza baten normalizazio politika testuinguru askotarikoan: oinarriko premiaz gain, helburu orokorrak eta bereziak aipatuz; 3) hizkuntzaren ikasketa eta integrazio soziala: txanponaren aurkia eta ifrentzua, hizkuntzaren eta integrazioaren arteko interdependentzia azpimarratuz. Zenbait ideia aberats adierazten dira, gaur egunean jadanik eztabaidagai direnak neurri batean, fenomeno hau modu egokian bideratzeko.

Gurean atalaren bukaeran sartzen dugu zoriekin emateko azpiatala ere: *JAKIN* aldizkariari, Ikastolen Elkartearen Federakuntzari, eta J.A. Fishman soziolinguistari. Gure aldizkariaren euskal soziolinguistika arloarekin lotzen diren gertaera berriak ospatzeko asmoz izan da.■

